

Agurra

## Udaberrirako asmoak eta Euskarabila elkartearen nondik-norakoak zuenganatuko ditugu ale honetan

Jakin ezazue, Aikor! barne-buletinaz gain, [www.euskarabila.org](http://www.euskarabila.org) gure webgune berrian ere informazio honen guztiaren berri izan dezakezuela. Posta elektronikoa ere erabili ohi dugu informazioa zabaltzeko, baina... ondo jasotzen al dituzue gure mezuak? Jakin nahiko genuke elkartearen, webgunearen edo beste edozein kezka inguruko zuen iritzia zein den. Bidaliko al diguzu e-mezu bat [euskarabila@topagunea.com](mailto:euskarabila@topagunea.com) helbidera? Bileretan parte hartu gabe, posta elektronikoaren bidez laguntzeko prest al zaude?

Honekin lotuta, *Euskara Elkarteen Topaguneak* Durangon pasa den urtarrilaren 23an eginiko jardunaldietan ikusi ahal izan genuenez, **gogoeta eta hausnarketa momentua** da euskara elkarte mugimenduaren inguruan. Gurean, Euskarabilan ere horrela gaude: indarberritzeko eta jende gehiago erakartzeko ahaleginak egin nahi eta behar ditugu, baina ez dugu asmatzen nola. Ilusioa ez da falta, baina zerbait gehiagoren beharra dugula sumatzen dugu. Badaukazue zer esanik??? Proposamenik??? Bota beldurrik gabe!

Bileretan parte hartu gabe, posta elektronikoaren bidez laguntzeko prest al zaude?

Animatu, jarri gurekin harremanetan. Une honetan ez dira garairik onenak euskararentzat Basaurin: indar eta asmo berriak behar ditu gure hizkuntzak eta denok ahal dugun pixkatxo hori emanez gero, seguru gaude indarberritu egingo garela.

## Zertan daude Euskarabila Elkarteen lokala eta Udalaren diru-laguntza?

Zaharrak barri. Hezetasunarekin borrokan egunero, berogailua eta leihoen kontrola egiten. Ez da egoitza duina, baina argi daukagu metroaren lanek irauten duten bitartean Udalak ez duela ezertxo ere egingo, eta gero... ikusiko!

Lan hauek egoera guztiz okertzen du. Une honetan Leon kaleko gure egoitzatik bueltatxo bat ematea eskatzen dizuegu eta ikusiko duzue zein baldintzatan ari garen funtzionatzen. Ez da txantxa.

Udalaren diru-laguntzari dagokionez, 2009koa baino %15 gutxiago izan da. Orokorrean murrizketa hori egon da krisi ekonomikoaren eragina argudiatuta. Hala ere, aurreko buletinean aipatu genuenez, euskararen eta euskal ohituren sustapenerako sortu berri den *Sustraiak Fundazioak* daukan 2010erako aurrekontua izugarria iruditzen zaigu.

Oraindik ez dakigu kopuru hori zertan eta nola erabiliko den, ezta Euskarabila Elkarreak zein harreman mota izango duen aipatutako fundazioarekin. Horretarako bilera bana eskatuko diegu bai Sustraiak Fundazioari bai Basauriko Udalari, kezkatzen gaituzten eta argitu nahi ditugun hainbat gai jorratzeko.



**Lan taldeak**  
**Haur eta gazteak**

## 2010eko Antzerki Topaketak

Social Antzokia izan dugu eszenatoki aurtengo ekitaldian

Martxoaren 11n eta 18an talde desberdinen antzezlanak ikusi ahal izan genituen Social Antzokian. Ibaigāneko Areto Nagusia zine komertzialerako ez den beste edozein jarduerarako itxirik, antzoki handiak beldurra ematen zigun hasieran, zergatik ukatu.

Baina emaitza bikaina izan zen zentzu guztietan: aurkezpen lanetan Itziar Ituño aktore basauriar ezaguna izan genuen, jendetza bildu zen egun bietan, antzezleak serio-serio aritu ziren, antzerkigintza irakasleek pozik eman zioten amaiera urritik hasitako lanari... Zer gehiago eska daiteke?

A, bai, datorren urtea GEHIAGO, 5. ekitaldia izango da eta!



Sari banaketa apirilaren 18an egin zen, Gorakada Teatro taldearen *Julio Verne-ren azken abentura* antzezlanean. Partaideak eta partaideen ikastetxeak beraien emanaldien grabazio banaz saritu genituen, urtero bezala, Social Antzokian bertan eta Gorakada Teatroko antzezleen eskutik.

### *Arratsaldeetan martxan!*

Euskarabilak proposamen interesgarria egingo du ekainari eta irailari begira

6. urtez Euskarabilak ekainari eta irailari begira proposamen interesgarria egingo du Basauriko ikastetxe guztietako ikasleek eskolarik ez duten arratsaldeetan gurekin bat egin dezaten, euskaraz jolasten, kirola egiten, eskulanak burutzen... ONDO PASATZEN EUSKARAZ!

Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urteko umeak eta Lehen Hezkuntzakoak izango dira parte hartzeko proposamena jasoko dutenak. Azpimarratzekoa da esperientzia handia duten aisialdi begiraleekin arituko garela beti eta Euskarabilak Bizkaiko Gizartegintzako Lan-Hitzarmena ezartzen diela begiraleei, beraien lan baldintzak duinak izan daitezen.

### *Surfean Sopelanan!*

Iazko irailean saiatu arren, ez zen talderik sortu, baina oraingoan *Peña Txuri* surf eskolarekin surfean ikasiko dugula ziur gaude. Ekainaren 7, 9, 14, 16 eta 21ean izango da hastapen ikastaro hau, arratsaldeko 17:30ean hasita 2 orduz, Sopelanan. Prezioan erantzunkizun zibileko aseguru, materiala

eta begiraleak sartzen dira: 50€ bazkideak / 60€ ez bazkideak. Bidaia, beraz, gure kabuz antolatu behar ditugu, baina taldea sortuz gero, denon artean egingo dugu antolaketa hori. Adinak ez du inolako garrantzirik. Beraz, gustuko duenik ezagutuz gero, gogoan har ezazue izena emateko peake maitezak 31n amaituko duela.

### **BERTSO SAIO MUNDIALA Basaurin!!!**

Balendik Enbeita Basauriko Bertso Eskolak bertso saio aparta prestatu du maitezaren 7rako: **baietz Social Antzokia bete!** Oraindik sarrerarik ez baduzue, 8€ besterik ez da eta bertsolari hauek entzuteko aukera ezin dugu galdu, non eta Basaurin gainera:

**MAIALEN LUJANBIO AMETS ARZALLUS JON MAIA**  
**UNAI ITURRIAGA ANDONI EGAÑA SUSTRAI COLINA**  
eta gai jartzaile lanetan, **ARKAITZ ESTIBALLES**

## Lan taldeak. Kultura

### *Idazleekin solasean*

*Berria* egunkarian gure aurreko gonbidatu Irati Jimenez idazlearekin martxoaren 10ean izandako solasaldiari buruzko erreportajea argitaratu zuten.

Bertan *Idazleekin solasean* gure egitasmoaren berri ematen zen eta honelako ekimenek ze nolako garrantzia duten bai idazleentzat bai irakurleentzat. **Eta guretzat, ez?**

**Hurrengo hitzordua apirilaren 28an** izango da, baina *Lagun armatua* liburuak irakurtzeko aukerarik izan ez baduzue ere, zatozte Euskarabilara, lehen lerroko gonbidatuak izango ditugu eta: Harkaitz Cano moderatzaile, Edorta Matauko itzultzailea eta Petra Elser EuskAlema elkarteko kidea.



### *Irakurri, Gozatu eta Oparitu*

Aurtengoa berrikuntzaz beterik etorriko zaigu, apirilaren 23ik uztailaren 25era bitartean luzatuko dena.

Libutegietako liburuak irakurrita eskuratuko ditugun ohiko deskontuez gain, hainbat basauriar ezagunek beren gustuko liburuak gomendatuko digute eta, maiatzaren 19an (17:00-20:00) **irakurraldia** egingo dugu Pozokoetxe Kultur Etxean.

Irakurri eta irakurri egingo dugu, ume, emakume, gazte, jubilatu, heldu, gizon... lagun askoren artean 3 orduz gustuko ditugun liburuen zenbat orrialde entzuleei eskaintzeko. Zuen ahotsa ere entzun nahi izango genuke.. Pasa zaitezte Pozokoetxeko liburutegitik eta txanda hartu!

Ekainaren 6an liburu sorta biren zozketa egingo da irakurketa fitxa betetako guztion artean Eta gehiago jakiteko, *Aikor!* honekin biorria duzue eta webgunean laster barru informazio guzti-guztia!


### *Zuberoako maskararako txangoa*

Martxoaren 6an eta 7an, 11 lagun elkartu ginen maskarada ikustera joateko. Idauze-Mendiko *Karrikia* aterpetxean hartu genuen ostatu: leku benetan gomendagarria bai familian bai lagun taldean joateko.



Larunbat arratsaldean Azkorria gaznakagiari bisita egin eta gero, bildots baten jaiotza bizi izan genuen gure gida eta laguna den Dominikaren etxaldean.

Gauean Urdiñarbeko Txistera ostatuan Xiberoko Botzaren aldeko bertso afarian izan ginen, Sustrai Colina, Zumai Murua, Xalbador eta Eneritz Zabaleta bertsolariekin. Igandea eguzkitsu esnatu zen. Goiz goizetik hasi ginen Altzürükü herriko barrikadetan eta esan behar da Larrañekoen maskarada bikaina ikusi eta gozatu genuela.



## Xaboi naturalak eta artisauak egiteko tailerra

Eman izena taldea osatu baino lehen!!!

Sendabelarrak eta preparauak egiteko iazko ikastaroa arrakastatsua izan bazen, hau ez da gutxiagorako izango. EHNERi esker, Ana Sabando Baztanetik etorriko zaigu xaboi naturalak egiten irakasteko. Lau astelehenetan elkartuko gara euskarabilan, maiatzaren 10etik 31ra bitartean, bi orduz (18:30-20:30).

Agenda	
Apirila	<b>Xaboi naturalak</b> ikastaroan izena emateko epea <b>Izena eman!</b>
Apirilak 20	<b>Sahara marathoia: kirolarekin desertuan zehar</b> diaporama Pozokoetxe Kultur Etxea 19:30
Apirilak 23	<b>Ipuin erotikoak</b> aurkezteko azken eguna
Apirilak 28	<b>Gatazka intimoak: euskal arazoa kanpoko begietan irakurraldia eta solasaldia</b> Raul Zelik-en <i>Lagin armatua</i> nobelaren inguruan. <b>Gonbidatuak: Harkaitz Cano, Edorta Matauko eta Petra Elser</b> Euskarabilaren egoitzan 19:00
Maiatza	<b>Surf ikastaroa:</b> izena emateko epea <b>Izena eman!</b>
Maiatzak 7, 8, 9	Familian asteburua euskaraz Getariako Askizu aterpetxera
Maiatzak 7	<b>Bertso saio mundiala Basaurin.</b> Baietz Social Antzokia betel! Social Antzokain 20:00
Maiatzak 10	<b>Xaboi naturalak</b> ikastaroaren Euskarabilaren egoitzan 18:30-20:30
Maiatzak 19	<b>IRAKURRI, GOZATU ETA OPARITU: Irakurraldia</b> Pozokoetxe Kultur Etxean 17:00-20:00 <b>Izena eman!</b>
Maiatzak 25	Ipuin erotikoen sari banaketa eta <b>Komuneko paperean idatzitako poemen errezitaldea</b> Imanol Epelde eta Mattin Epelderekin. Pozokoetxe Kultur Etxean 19:30
Ekainak 7	<b>Surf ikastaroaren</b> hasiera Sopelanan 17:30-19:30
Ekainak 9	<b>Idazleekin solasean: Igor Estankona eta Iratzeen esporak liburua</b> Euskarabilaren egoitzan 19:00